




TEKNOLOGIA



GEOGRAFIA  
ETA HISTORIA



BIOLOGIA  
ETA GEOLOGIA



ENPRESA ETA  
JARDUERA  
EKINTZAILEEN  
HASTAPENA

## Amaierarik gabeko zikloa

### Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

1. Hondakinen kudeaketaren arazoaren aurrean sentsibilizatzea eta maila lokal zein globalean dituzten inplikazioak ulertzea.
2. Hondakinen arazoarekin lotutako kopuruak interpretatzea.
3. Ontzien zikloak nola funtzionatzen duen ulertzea.
4. Ecoembes zer den eta zein funtzio duen jakitea.
5. Diseinatzaile, fabrikatzaile-ontziratzaile, banatzaile, kontsumitzaile, instituzio, hautatze-planta eta birziklatzeko enpresen betebeharrak identifikatzea.
6. Hondakinen bereizketan ohiko akatsak antzemateko gai izatea.

## Amaierarik gabeko zikloa

### ● Jarduera hau zertarako da?

Zirkuitoak osotasunetik ikusiko ditugu, aldaketa positiboak non gauza daitezkeen ulertuz. Taldean lan egitea, zereginak banatzea eta bateratze-lana egitea.

### ● Zer behar dugu?

Interneera lotura duten ordenagailuak. Arbelak, kartulinak edo enbalatzeko papera. Errotuladoreak, post-itak, artaziak, zinta itsasgarria eta kola.


### ● Zer egingo dugu?

Gelako hormak enbalatzeko paper-banda batekin forratuko ditugu, eta, beraz, horma bateko papera amaitzen den lekuan hurrengoak jarraituko du (koloretako kartulinak ere erabil ditzakezue), amaierarik gabeko zikloa irudikatuz. Gela taldetan banatuko dugu eta talde bakoitzak ondorengo agenteek birziklapen-zikloan betetzen duten funtzioaren inguruko informazioa bilatu beharko du:

**1. Taldea:** ekodiseinatzaileak. **2. Taldea:** ontziratzaile-ekoizleak. **3. Taldea:** instituzioak.

**4. Taldea:** kontsumitzaileak. **5. Taldea:** hautatze-plantak. **6. Taldea:** birziklatzeko enpresak.

Talde bakoitzak espazio bat izango du horma-irudi kolektiboan bere taldeak egiten duena eta zein ekintza positibo egin daitezkeen deskribatzeko. Bozeramale bat aukeratuko da, klase amaieran gainontzekoei azalpenak emateko. Irakasleak moderatzaile jardungo du eta irakasle horrek edo izendatutako idazkariak ontzien zikloaren azken laburpena egingo du.



### Jarraituko dugu?

Hautatze-planta bat, kontsumo handiko produktu-fabrika bat edo birziklatzeko enpresa bat bisitatzea osagarri ezin hobea izango litzateke ziklo osoa ikusteko.